

5.2 I motatako Obra txikia-Aurre jakinerazpena

Espediente kodea:OTBA

Zer da? Zertarako da?

Hauek dira Obra Txikiak:

- konplexutasun tekniko handirik gabeko obrak
- Hirigintza, material eta ekonomia ikuspegitik hedadura murrizta duten obrak
- Obra haundien sailkapenaren barruan sartzen ez diren obrak.

Hortaz obra txikiak ezin diete eragin besteak beste:

- Eraikinaren hirigintza parametroei (erabilera, eraikigarritasuna, geometria eta abar)
- Eraikinaren egitura elementuei
- Eraikinaren funtzionaltasun baldintzei, bizigarritasun baldintzei eta segurtasun baldintzea

I motatako obra txikiak egiteko, dokumentaziom teknikoa eta hala badagokio Proiektu Teknikoa behar da eta haien tramitazioa **Aurre Jakinerazpen Erregimen** bidez egiten da.


Nork eska dezake?

Interesdunak edo haren legezko ordezkariak

Aurkeztu beharreko agiriak

- [OBRA TXIKIAREN jakinarazpen inprimakia](#)
- Hernaniko Udalaren hirigintza-lizentziak nola eskatu, nola izapidetu eta horien exekuzioa nola kontrolatu behar den arautzen duen ordenantza 5. eranskinean zehaztuta datorren dokumentazioa.
- Hondakinak kudeatzeko plana edo Obra hondakinak kudeatzeko azterlana.
- Hondakinen kudeaketari dagokion fidantza jarri izanaren frogagiria.
- Tasa eta zergen likidazioaren frogagiria.

Nola eskatzen da?

 **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehenetik ostiralera: **08:00 - 14:00**.

☎ **Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu, dena den, informazio gehiago edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

💻 **Internet:** www.hernani.eus web orriaren bidez eskaera-orria bete eta Udaletxean aurkez dezakezu.

✉ **Posta arrunta:** Hernaniko Udala, **hhz**, Gudarien plaza 1, 20120 Hernani

Zenbat kostatzen da?

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga

- Oro har, aurkeztutako aurrekontuaren %4
- 12.000 eurotik beherako kostua duten obrak %0
- Merkataritza-lokal txikiak berritzeko, 60.000 eurotik beherako kostua duten obrak %0
- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Bizigune programa barruan burututako obrak %2

Nekazaritzako jarduerekin zerikusia duten instalazio edo eraikinetako obrak:

12.000 eurotik gorako kostua duten obrak %1,65

Nekazaritza jarduerarekin zerikusia duten etxebizitzetarako xedea duten eraikinetako obrak, betiere etxebizitza hori ustiapenaren titularraren ohiko etxebizitza gisa erabiltzen bada (dedikazio osoa duenean):

12.000 eurotik gorako kostua %1,65

Tasa:

- 6001 € eta 12.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak 73,45 €
- 12.001 € eta 30.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak 269,10 €

- 30.001 € eta 100.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak 738,80 €
- Luzapea %30

Obrak egiteko bide publikoan eraikuntzako elementu osagarriak jarri behar izanez gero, eskatzaileak dagozkoon eskubide eta tasak ordaindu beharko ditu (Aitorpena)

Hondakinen kudeaketari dagokion fidantza:

Fidantza ezartzeko aurkeztutako aurrekontua izango da kontuan:

- 10.000 € arteko aurrekontuei ezarriko zaien fidantza da: 200€
- 10.001 € eta 20.000 € arteko aurrekontuei ezarriko zaiena da: 400€
- 20.001 € eta 50.000 € arteko aurrekontuei ezarriko zaieana da: 600€
- 50.001 € baino aurrekontu altuagoa dutenei: Eraikitze eta eraiste lanen ondoriozko hondakinen kudeaketaren kostuaren %120

Fidantza itzuli ahal izateko [fidantza itzulketarako eskabide normalizatua](#) aurkeztu beharko da udalean eta, eskabidearekin batera, sortutako obra hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten agiriak ere bai.

Prozeduraren epea

Udalak MUNTA TXIKIKO OBRAko eskatzen den **dokumentazio guztia onartu eta hurrengo egunetik aurrera has daitezke obrak**

Tramitzeko ardura duen udal saila

Hirigintza eta Ingurumen saila- **943 337031**

Informazio gehiago: **943 337000** edo hhz@hernani.eus

Oharrak

Zeintzuk dira OBRA TXIKIAK (I mota)?

- Etxebizitzan, lokalen, eta eraikinetako elementu komunen barnealdea eraberritzea eta birgaitzea (trenkadei, igeltserotz-lanei, instalazioei, azpiegitura komunei, lokalen edo bulegoen erabilerari eta abarri eragiten dietenean), eraikinen gainean hedadura orokorrik ez dutenean eta Obra Handizat jo behar ez direnean.
- Fatxada, estalki eta horien eraikuntza-elementu edo instalazioak kontserbatzea eta konpontzea, baldin eta ez badute eraginik:
 - Egitura elementuetan.
 - Hirigintza parametro nagusietan (forma, bolumetria, etab.) Edo lehendik zegoen eraikuntzaren antolamendu arkitektonikoan.
- Eraikinen behe-solairuan kokatuta dauden lokalen fatxadan baoak irekitzea, Obra Handizat jo behar ez direnean, baldin ez badute eraginik:
 - Egitura elementuetan.
 - Erabileran.
 - Hirigintza parametro nagusietan (forma, bolumetria, etab.) Edo lehendik zegoen eraikuntzaren antolamendu arkitektonikoan.
- Eraikinen, etxebizitzan, lokalen eta lur-zatien irisgarritasuna hobetzeko jarduerak. Horien artean, eraikinen barnealdean igogailua instalatzea, horrelako ekintza bat Obra Handi gisa izendatu behar denean izan ezik.
- Eraikuntzak edo instalazioak zati batean edo osorik eraistea, esku-hartzearen azalera 15 m²-tik gorakoa EZ denean edo horren profila solairu bat baino gehiagokoa EZ denean (kasu horietan Obra Handia izango da).
- Eraikinen behe-solairuetako eta goi-solairuetako fatxadetan markesinak, toldoak eta errotuluak instalatzea.
- Eraikin osagarriak egitea (lanabesetarako txabolak, estalpeak eta abar) 15 m²tik beherako azalera badute eta gehienez ere solairu bateko profila badute, indarrean dagoen hirigintza-planeamenduak onartutako kasuetan.
- Lurzoru hiritarrean edo hiritargarrian antolatutako lur-zatietan edo lurzoru ez-hiritargarriko lursailetan itxitura perimetralak eraikitzea.
- LURZORU PUBLIKOA EDO PRIBATUA elementu osagarrien bidez OKUPATZEA (eraikuntza materialak, hesiak, garabiak, karga-jasogailuak, aldamiok, lanabesak, 3 edukiontzi edo gehiago, obra-etxolak, etab.)
- LURZORU PUBLIKOAN EDO PRIBATUAN zerbitzu-sareekin lotzeko putzuak eta zangak irekitzea, eta halaber, esplorazio geoteknikoko eta arkeologikoko zundaketak eta laginketak egitea, betiere horrelako jarduerak Obra Handien Proiektuen barruan geratzen ez badira.
- Lurzoru libre pribatuan eraberritze-jarduerak egitea, baldin eta zoladurari, azpiegitura-sareei, lorezaintzari eta abarri eragiten badiete edo zuhaitzian mozketak egitea badakarte.

- λ) Publizitate-elementuak jartzea lurzoru ez-hiritargarran, exekutatu gabeko lurzoru hiritargarran edo jabari publikoko espazioetan edo orubeetan edo lurzoru hiritarreko eraikinetan.
- μ) Lur-mugimenduak (orubeak hustea, eskabazioak egitea, lurrez betetzea, betelanak eta abar), bolumen osoa 150 m³-tik gorakoa denean edo 300 m²-tik gorako lur-azalera bati eragiten dionean.

Nola lortzen da udal baimena?

I. Motako OBRA TXIKIA egiteko udal baimena lortzeko, inprimaki hau aurkeztu behar da udalean: OBRA TXIKIA (I motatako obra txikiak – Aurre jakinarazpena). Inprimakiarekin batera hurrengo atalean adierazten den dokumentazioa ere aurkeztu behar da.

Inprimakia aurkeztu ondoren, hilabete bateko (1) epean, udalaren ebazpena jakinaraziko zaio interesatuari.

- Udalaren ebazpenak interesatuak proposatutako obrak baimentzen baditu, obrak egiten has daiteke, baldin eta ebazpenean adierazitako baldintza guztiak bete baditu (zergak eta tasak ordaindu, fidantza jarri, obraren exekuzioarekin lotutako baldintzak, etab.)
- Udalaren ebazpenak ez baditu proposatutako obrak baimentzen, interesatuak ezingo ditu obra horiek egin. Udalaren ebazpenak adierazi beharko du zergatik ez dituen obrak baimendu.
- Udalak hilabete bateko (1) epean jakinarazpenik egiten ez badu, interesatuak ahalmena izango du proposatutako obrekin hasteko. Hilabete (1) epea etenda geratuko da baldin eta Udalak dokumentazio osagarria aurkez dadila eskatzen badu (30/1992 Legearen 42. artikulua zehazten dituen kasuetan)

Araudi aplikagarria

- *X. Titulua: Hernaniko Udalaren hirigintza-lizentziak nola eskatu, nola izapidetu eta horien exekuzioa nola kontrolatu behar den arautzen duen ordenantza (2014ko azaroak 28ko GAO, 248 zk.)*
- *I. Titulua: Eraikuntza ordenantzak (2013ko ekainaren 19ko GAO, 116. zk.)*
- *Arau subsidiarioen Berrikuspenaren Textu Bategina (2011ko maiatzaren 13ko GAO, 90 zbkia)*
- *Segurtasuna eta osasuna: 1627/1997 Errege Dekretua (1997ko urriaren 25eko BOE, 256. zk.)*
- *Irisgarritasuna: 68/2000 Dekretua (2000ko ekainaren 12ko EHAA, 110. zk.)*
- *Suteen prebentzioa: CTE-DB-SI*
- *Hernaniko Udaleko Ordenantza Fiskala (2018ko Abenduaren 31an GAOan publikatua)*